

LEHEN HEZKUNTZAKO 6.EKO PROBAK **2015-2016 ikasturtea**

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako zuzendaritzeari aditzera eman die hurrengo proba-multzoak egingen direla:

1. British edo IIP egiten ari diren ikasleen berariazko ebaluazio diagnostikoko probak, zeinetan, gainera, kontrol-ikastetxeen lagin batek parte hartzen duen. Ingeles gaitasuneko ahozko eta idatzizko berariazko proba eta gaitasun zientifikoko proba egingen dituzte.
 - Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko berariazko proba
 - Ingelesaren mintzameneko berariazko proba
 - Gaitasun zientifikoko proba. Proba hau, gainera, Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuragarri egonen da, ikastetxe guztien eskura, nahi badute, erabil dezaten datuak Educan sartu gabe.
2. Ebaluazio proba zentsalak Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilan, prestakuntza izaerakoak eta ikastetxeen barne-ebaluazioen osagarriak. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan egin behar dira, aurreko multzoko probetan parte hartu edo ez. Ikastetxeek datuak Educan sartuko dituzte eta ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sartuko dituzte.
 - Gaztelaniazko irakurmen proba
 - Euskarazko irakurmen proba
 - Gaztelaniazko idazmen proba
 - Euskarazko idazmen proba
 - Matematika gaitasunerako proba
 - Ingeleseko gaitasunerako proba

Protokolo honetan bigarren multzoko probei dagozkien oharrak ematen dira.

Jarduketan protokoloa

LHko 6.ean British edo IIP irakatsi eta berriazko ebaluazioan parte hartzen duten ikastetxeak	Berriazko ebaluazioan parte hartzen duten kontrol-ikastetxeak		Gainerako ikastetxeak	
	A/G hizkuntza ereduko ikasleak	D hizkuntza ereduko ikasleak	A/G hizkuntza ereduko ikasleak	D hizkuntza ereduko ikasleak

Berriazko ebaluazioa (lagina)	Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko berriazko proba					
	Ingelesaren mintzameneko berriazko proba					
	Gaitasun zientifikoko proba				Erabakia ikastetxearen esku. Proba eskuragarri Hezkuntza Departamentuko webgunean. Datuak ez dira Educan sartuko.	

Ebaluazio diagnostiko zentsala	Gaztelaniazko irakurmen proba					
	Euskarazko irakurmen proba					
	Gaztelaniazko idazmen proba					
	Euskarazko idazmen proba					
	Matematika gaitasunerako proba					
	Ingeleseko gaitasunerako proba	Erabakia ikastetxearen esku	Erabakia ikastetxearen esku	Erabakia ikastetxearen esku		

AURKIBIDEA

A.	Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa	4
B.	Probak entregatzea eta zaintzea	6
C.	Ebaluazio probak nork egingen dituzten.....	6
D.	Proben egokitzapena	6
E.	Probak egitea.....	8
F.	Aplikazio fasea prestatzea	8
G.	Aplikazioa	8
H.	Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak	10
I.	Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko probaren berariazko jarraibideak (english literacy)	10
J.	Probak aplikatzeko egutegia	12
K.	Proben zuzenketa	12
L.	Datuak sartzea.....	13
M.	Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea	14
N.	Ikasleek egindako probak gordetzea.....	16
O.	Eskerrak ematea.....	16
1.	Eranskina (Egokitzapenen erregistroa)	17
2.	Eranskina (egutegia).....	18

Dokumentu honetan jarraibideak ezarri dira, probak Nafarroako ikastetxe guztietan kontrolpean eta modu berean aplikatzen, zuzentzen eta erregistratzen direla bermatzeko.

Ebaluazio honen aplikazio, zuzentze, grabatze eta informatze lanean zuzenki inplikaturik dauden zuzendaritzako kide eta irakasleek behar besteko aurrerapenez ezagutu beharko dituzte jarraibide hauek, eta praktikara eraman.

A. Galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala online aplikatzeko protokoloa

Oharrak:

1. Gaur egun Lehen Hezkuntzako 6.a ikasten duten ikasle askok 2013-2014 ikasturtean egin zituzten ebaluazio diagnostikoko probak eta, horrenbestez, bere garaian bete zuten behar den galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala. Hala ere, azken 2 urteetan beharbada ikastetxe askoren errealitatea aldatu da eta, horrenbestez, berriro egin dezatela eskatzen diegu.
2. British programa edo IIP ikasteagatik edo kontrol-multzokoak izateagatik, galdera-sorta sozioekonomiko eta kulturala idatziz bete zuten ikasleek eta ikastetxeek ez dute galdera-sorta hau online bete beharko.

Online aplikazioak isilpekotasuna bermatzen du eta, orobat, ebaluazio diagnostikoaren txostenean, ikastetxeek indize sozioekonomiko eta kulturala izaten segituko dute, indize horren arabera gaitasun bakoitzerako balioetsitako puntuazioekin eta grafikoak gaitasun bakoitzerako Errendimendua-ISEK erregresio-zuzenarekin eta hartan ikastetxea non dagoen adieraziz.

Galdera-sorta hobeki aplikatzeko, ikastetxeek jarraibide hauek beteko dituzte:

1. Lehen Hezkuntzako 6.eko ikasleek galdera-sorta bete beharko dute, "Proben egokitzapena" ataleko irizpideei jarraikiz.
2. Galdera-sorta helbide honetan eskuragarri izanen da:
<http://dpto.educacion.navarra.es/eed/>
3. Ikasle bakoitza galdera-sortan sartuko da erabiltzaile izen batekin eta pasahitz batekin; biak isilpekoak izanen dira.
4. Ikastetxeetako zuzendariak erabiltzaile izenen eta pasahitzen zerrenda (matrikulaturiko ikasleak bezainbeste) **Educa** (**Educa/Kudeaketa Akademikoa/Ebaluazio diagnostikoa**) bidez jasoko dute. Zerrenda horretan ez da ikasleak identifikatzeko moduko daturik agertuko.

Aplikazioa egin behar denean, ikastetxeko zuzendariak LHko 6. ikasmilako tutore bakoitzari erabiltzaile izenak eta pasahitzak (ikasleak bezainbeste) emanen dizkie eta bere ikasleen artean ausaz banatuko ditu.

5. Aplikazioa egin aurretik, tutoreek eta ikasleek askatasunez praktikatzen ahalko dute. Horretarako, probako **erabiltzaile eta pasahitz** hauekin:

Erabiltzaile izena: Irati
Pasahitza: Irati


Noiznahi eta normahi sar daiteke *probako erabiltzaile* modura. Horrek aukera ematen die tutoreei eta ikasleei galdera-sorta aztertzeke eta datuak betetzeko aplikazioan gorde gabe. *Bidali* botoian *klik* eginda ere ez dira gordeko.

Ikastetxeak berak erabakiko du nola bete behar den galdera-sorta. Nolanahi ere, komenigarritzat jotzen da tutoreak prestakuntza jarduerak egitea ikasleek galdera-sorta eta betetzeko jarraibideak ezagutzeko eta bete behar duten unean galderei segurtasunez erantzuteko.

6. Aplikazio saioa. Tutoreak antolatuko du saio hau eta ikastetxeko ordenagailuak erabiliko ditu horretarako. Ikasleak aplikazioan sartuko dira, tutoreak ikasle bakoitzari ausaz emanen dizkio erabiltzaile izena eta pasahitza, ikasleek aplikazioan sartuko dituzte eta galdera-sorta beteko dute.

Erraz betetzen da. Nolanahi ere, alderdi hauek kontuan hartu behar dira:

- Galdera bakoitzean, ikasleak aukeren arteko erantzun bat hautatuko du. Ikasleak erantzuna noiznahi alda dezake.
- Galdera-sortan gora eta behera egin daiteke.
- Galdera-sorta bukatzeko eta erantzunak gordetzeko, *klik* egin behar da **Bidali** botoian. Hau egitea nahitaezkoa da erantzunak gordetzeko.
- Ikasleak galderak erantzun gabe utzi baditu, **Bidali** botoian klik egiten duenean aplikazioak zer egin duen ohartaraziko du eta ikasleak galdera-sorta betetzen segitzeko aukera izanen du edo bukatutzat emanen du **Dagoen bezala bidali** botoian klik eginez.



- **Bidali** botoian *klik* egin eta galdera-sorta bukatu ondoren, ezin izanen da berriz sartu galdera-sortan erabilitako erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin.
7. Epeak: galdera-sorta **apirilaren 20tik maiatzaren 20ra bitartean** beteko da.
 8. Oharrak eta zalantzak. Izan daitezkeen zalantzak mezuak argituko dira **evaleduc@navarra.es** posta elektronikora bidaliz edo 848426554 telefonora deituz.

Galdera-sorta ongi betetzen bada, ikastetxeek datu fidagarriagoak izanen dituzte eta beren ikasleen hezkuntzari buruzko alderdi garrantzitsuak hobeki ezagutuko dituzte.

B. Probak entregatzea eta zaintzea

1. Aurreko ikasturteetako prozedura erabiliko da:
 - a) Lizarra, Lekaroz, Tafalla eta Tuterako ILZei atxikiriko ikastetxeek probak haiei dagokien ILZren egoitzan jasoko dituzte, **2016ko maiatzaren 18, 19 eta 20an**.
 - b) ILZ horiei atxikiriko ikastetxeren batek Iruñean jaso nahiko balitu, **posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Ikasleen Ebaluazio Arloari, apirilaren 29a baino lehenago** (evaeduc@navarra.es).
 - c) **Iruñeko ILZri** atxikiriko ikastetxeek probak Hezkuntza Departamentuan jasoko dituzte, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuan (tarteko solairua), **2016ko maiatzaren 18, 19 eta 20an**, 08:30etik 14:30era.
2. Behin ikastetxean daudela, egiaztatuko da koaderno kopurua egokia den eta giltzapean sartuko dira, isilpekotasuna bermatuz.
3. Zuzendariak proba bakoitzean beharko diren koadernoen kopuru zehatza emanen diete aplikatzaileei, **gehienez ere proba hasteko ordubete edo gutxiago** falta denean.

Koadernoak paketatuta egonen dira, eta proba hasteko unean irekiko dira.
4. Aplikatzaile eta zuzentzaileek erabat isilpean gordeko dute proben edukia, **ekainaren 6ra arte**. Egun horretatik aitzina probak aske eta irakasleendako eskuragarri geldituko dira.

C. Ebaluazio probak nork egingen dituzten

Oro har, Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilako ikasle guztiek ebaluazio probak egingen dituzte, hurrengo atalean deskribatutako egokitzapenak egin ondoren, halakorik behar denean.

D. Proben egokitzapena

Uztailaren 16ko 60/2014 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezarri zen. Foru dekretu horren 16. artikuluan adierazten da Hezkuntza Departamentuak ikasle horiek curriculumak garatu ahal dezaten lagungarriak izanen diren irisgarritasun baldintzak eta sostengu baliabideak ezarriko dituela eta ebaluazioak behar bezala egingen direla ziurtatzeko tresnak eta, behar denean, denborak eta sostenguak egokituko dituela.

Hezkuntza sostenguko berariazko premiak dituzten ikasleak ebaluatzeko atal honetan ezarritako oharrak kontuan hartuko dira, ikasle bakoitzaren ikaskuntzari dagokion banakako informazioa emateko xedez. Egokitzapen neurriak hiru motatakoak izan daitezke: sarbidea erraztekoak, antolakuntzakoak edo curriculumekoak.

Orobat, bereziki ohar hauek kontuan izanen ditugu:

1. **Sarbideko eta antolakuntzako egokitzapenetan** honako hauek sar daitezke: proben formatua eta aurkezpena, proben denbora eta probak egiteko tokia eta banaketa, ingurua (argiteria, akustika...), probak egiteko jarraibideak, erantzunaren forma (baliabide teknologiko egokituak eta irisgarriak...), etab. Kasu hauetan, emaitzak Educa aplikazioan sartuko dira modu normalizatuan.
2. **LHko 6.eko ikasleak, hau da, LHko 5.eko Matematika eta Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekerazio planak (PR) egiten ari direnak.** Ikasle hauek probak normaltasunez egiten dituzte eta emaitzak modu normalizatuan sartuko dira Educa aplikazioan.
3. **Curriculumeko atzerapena duten ikasleak eta LHko 6.eko ikasleak, LHko 4.eko edo behegoko ikasmaitako Matematika eta Gaztelania edo Euskara (D ereduan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekerazio planak (PR) egiten ari direnak.** Ikasle hauek beren gaitasunari edo curriculum-mailari egokitutako ebaluazio probak egin beharko dituzte eta emaitzak ez dira Educa aplikazioan sartuko.

Kasuistika hau duten ikasleek lehen fase batean proba bera egin dezakete, gainerako ikasleek egiten dituzten baldintza berberetan, eta saioa bukatu ondoren bigarren fase batean proba egiten segitu dezakete beharrezkoak dituzten egokitzapenekin. Ikastetxea arduratuko da proba horiek modu pertsonalizatuan egiteaz. Banakako txostena modu pertsonalizatuan idatziko da eta bertan adieraziko dira erdietsitako ikaskuntzako estandarrak eta lortutako ebaluazioa, eta etapako zer ikasmaitari dagozkion.

4. Neurririk egokienak hartuko dira proben baldintzak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen beharrei egokitzeko. Ikasleren batek **curriculum-egokitzapen garrantzitsu** bat ezarrita badu egokitzapen horren arabera eta dagokion mailan ebaluatuko da. Egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginiko txosten psikopedagogikoan oinarrituko dira eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko prozesuetan egin dituen egokitzapenak erabiliko dira. Kasu hauetan emaitzak ez dira Educa aplikazioan sartuko.

Ikastetxeak (zuzendariak, orientatzaileak, tutoreak, irakasle espezialistak...) aurreikusi eta jarriko ditu behar diren egokitzapenak eta laguntzak, baita egokitutako probak egiten ere. **Zuzendaritza taldeek** beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanen dituzte eta erabili beharreko gune eta denborak egoki **antolatuko dituzte**. Galdera-sorta betetzeko denbora handitzen bada, egokitzapenak dituzten ikasleek proba egiten segitzen ahalko dute, gainerako ikasleek proba bukatu ondoren.

Ikastetxeek aurretik eta behar den denboraz **Egokitzapenen Erregistroa** beteko dute (l. eranskina) eta ikastetxean gordeko da (**ez da Ikuskapen Zerbitzura igorri behar**). Zuzendaritza taldeak eta/edo orientatzaileak, hala dagokionean, proben aplikatzaileei xeheki adieraziko diete zer egokitzapen egin behar duten eta, hala behar denean, baita zuzentzaileei ere.

E. Probak egitea

1. Probak arkatza edo bolaluma erabiliz beteko dira, ikastetxe bakoitzak erabakitakoaren arabera.
2. Ikasleek **ez dute kalkulagailurik erabiliko** probetan.
3. Zirriborro papera:
 - Matematikako gaitasun proban ikasleek orri zuriak erabiltzen ahal dituzte eragiketarako, baina oharrak ebaluazio koadernora pasatu beharko dituzte galderak irekiak direnean eta urratsak edo planteamenduak eskatzen direnean.
 - Era berean, ingeleseko proban ikasleek zirriborro papera erabili ahal izanen dute probaren lehen zatian oharrak hartzeko (*Listening* edo entzumena).
 - Ez da zirriborroaren papera jasoko.

F. Aplikazio fasea prestatzea

1. Zuzendariak Protokolo hau aplikatzaileen esku utziko dute, aplikatzen hasi baino 72 ordu lehenago, gutxienez. Nolanahi ere, gomendatzen da protokoloa eta ebaluazio prozesu osoaren plangintza taldean aztertzea.
2. Ingeles proba egin behar denean bereziki hartu behar da kontuan audio-erreproduzitailea erabili behar dela eta horretarako berariazko jarraibideak daudela.
3. Tutoreek lana prestatuko dute ordua bete aurretik proba bukatzen duten ikasleentzat, lanean jarrai dezaten ikaskideak molestatu gabe.
4. Ikastetxeek egokitzen dituzten informazio eta motibazio neurriak hartuko dituzte, egitekoa onartzeko eta lanerako giro egokia sortzeko.

G. Aplikazioa

1. Probak ikastaldeari eskola ematen dioten irakasleek aplikatuko dituzte, **baina ez une horretan ebaluatzen ari den gaitasunarekin zuzenean lotutako irakasleek**. Horren ondorioz, ingeles gaitasuneko proba ez du ingeleseko espezialistak aplikatuko.
2. Aurreko puntua betetzerik ez dagoenean, ebaluatoriko ikastaldeari eskolarik ematen ez dion irakasle batek aplika dezake proba.

3. Aplikazioan zehar, aplikatzaileak konpromisoa hartuko du protokolo honetan dauden jarraibideak fideltasunez jarraitzeko eta ez du proben edukiari, testuei edo galderei buruzko **argibiderik, ñabardurarik eta interpretaziorik** emanen. Aplikatzailearen eginkizuna da errespetuzko eta bakarkako lan giroa bermatzea eta ikasleei esanen diena ondoko mezu hauen antzekoa izanen da: *adi irakurri; segi lanean; galdera ez baduzu ulertu segi lanean eta saiatu geroago; baduzu denbora errepasatzeko...*

Bere lana egoki betetzeko, aplikatzailea ikasgelan gertatzen denaz, ikasleez eta probaren garapenez arduratuko da, eta ikasleek arretaz lan egin dezaten eta eman zaien denbora ahalik eta gehien aprobetxa dezaten ahaleginduko da.

4. Aplikatzaileak ikasleei proba oso garrantzitsua dela jakinaraziko die eta beraiek bezala Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilan dauden Nafarroako ikasle guztiak egiten ari direla. Orobat, esanen die ahalik eta ongien egiten saiatu behar dutela, tutoreak gurasoei ekainean emaitza emanen diela eta abar. Sentsibilizazio lan hori oso garrantzitsua da ikasleen inplikazioa eta ahalegina sustatzeko, eta ikastetxean aurreikusitako lan planaren arabera egin daiteke.
5. Aplikatzaileak ikasleei jakinaraziko die ikasgelan egon behar dutela proba bukatu arte. Lehenago bukatzen badute, tutoreak proposaturiko lanak egin beharko dituzte, ikaskideen lana eten gabe. Aplikatzailea ikasleek egin beharreko lanaren jakitun izanen da, eta lan hori egiten dela bermatuko du.
6. Aplikatzaileak zerrenda bat izanen du ikastaldeko kide guztiekin, baita egokitzapenak behar dituzten ikasleen erregistroa ere. Zerrenda pasatuko du eta bertaratu gabeak apuntatuko ditu.
7. Bermatuko du ikasleen mahaien artean behar besteko tartea dagoela, lana banakakoa izan dadin. Hori horrela dela bermatuko du saio guztian zehar.
8. Behin dena ordenan dagoela, koadernoak paketea ireki eta koadernoak banatuko ditu. Azaleko datuak betetzeko esan ondoren, probaren koadernoan dauden jarraibideak irakurriko ditu, eta esanen die galdera irekiak daudela, eta baita itxiak ere, eta azken horietan erantzun bat hautatu behar dutela (A, B, C edo D). Esanen die, orobat, galdera irekietan galderaren ondoren dagoen gune librean idatzi behar dutela erantzuna, eta matematikako gaitasuneko probako ariketetan behin eta berriz azpimarratuko du problema ebazteko urratsak edo planteamendua idatzi behar dituztela, galderaren izenburuan hala eskatzen bada.
9. Ikasleek izan ditzaketen zalantza orokorrak argituko ditu, eta adieraziko die bakarrik egin beharko dutela lan, eta zerbait ulertzen ez badute, eskatuko die berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko. Probaren edozein unetan ikasleek berrikusi ahal izanen dituzte aurreko galderak.
10. Behin zalantza guztiak argitu ondoren, arbelean idatziko ditu probaren hasierako eta bukaerako orduak. Probarako esleituriko denbora 60 minutu da. Hori denbora erreala edo baliagarria da: "Une honetatik aurrera hasiko gara kontatzen probako 60 minutuak."
11. Behin proba hasita, aplikatzaileak ez du inongo argibiderik edo erantzun berririk emanen, eta probaren edukiari buruzko galderarik egiten badiote, galdera berriz ere irakurtzeko edo ondoko galderara pasatzeko gomendioa egingen die.

12. Bukatzeko 10 minutu falta direnean horren berri emanen du.
13. Probaren denbora bukatzean, aplikatzaileak koaderno guztiak jasoko ditu eta ikastetxeko jarraibideei lotuko zaie, bertaratu gabeko ikaslerik izatekotan, haiek proba beste une batean egin dezaten antolatze eta, ondoren, probak zuzentzeko.
14. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak proben aplikazioaren kalitate kontrola egin dezake, ikastetxeen ausazko lagin batean. Ikuskatzailea aplikazio saioan egon daiteke, protokolo hau betetzen dela kontrolatu eta egiaztatzeko.

H. Proba egunean bertaratu ez diren ikasleak

Ebaluazio hau Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilako ikasle guztiek egin behar dute eta, beraz, probaren egunean bertaratzen ez direnek lehenbailehen egin beharko dute, ikastetxe bakoitzak aurreikusitako berreskuratze planaren arabera.

Posible bada, erantzunak EDUCA aplikazioan sartuko dira eta, hala egiten ez bada, ikastetxeak aukera dauka probak eskuz zuzendu eta ikaslearen txostena idazteko Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikastetxeen eskura jarritako materiala erabiliz, hala nola, erantzun zuzenak, ebaketa-puntuak eta asmatze-ehunekoak.


I. Ingeleseko hizkuntza gaitasuneko probaren berriazko jarraibideak (English Literacy)

Oro har ezarritako jarraibideez gainera, ondoko hauek ere hartuko dira kontuan:

1. Aplikatzaileak, aurretik behar den denboraz, egiaztatuko du audio-erreproduzitzaila eta ingelesezko hizkuntza gaitasuneko probaren CDa (entzunaldia) egoki dabilzala eta ikasgela osoan ongi entzuten dela.
2. Aplikatzaileak azalpen guztiak taldeko irakas-hizkuntzan emanen ditu, gaztelaniaz G/A ereduko ikasleei eta euskaraz D eredukoei.
3. Jarraian, azalduko du probaren lehen zatiari hasiera ematen dion LISTENING atala (entzunaldia) honela egingen dela:
 - a) Ikasleek 2 minutu izanen dituzte koadernoko *Listening*-eko galderak irakurtzeko, aldeztatik jakin dezaten eskatzen dena zer den.
 - b) Jarraian, 2 aldiz entzuten dute ingelesezko entzunaldi bat.
 - c) Entzunaldien artean minutu bateko etena dago. Etenean galderak erantzuten has daitezke eta, horrela, ondoko entzunaldiari begira, ulertu ez duten horri errepara diezaioke.

- d) Entzunaldian oharrak hartu ahal izanen dituzte, zirriborro orrian.
- e) Entzunaldia bukatu ondoren, ikasleek dakizkiten galderak osatuko dituzte eta probaren lehen zatia egiten segituko dute, norberak bere erritmora.

Ondoko taulan aplikatzaileari esaten zaio zeintzuk diren LISTENING (entzumena) ataleko jarduerak eta denborak:



4. Aplikatzaileak galdetuko du ba ote den zalantzarik probaren gainean, eta zalantza horiek argituko ditu, aurreko urratsak errepikatuz, ikasle guztiendako erabat argi gelditu arte.
5. Zalantzak argiturik, arbelean idatziko du hasierako eta bukaerako ordua, kontuan izanik proba egiteko 60 minutu daudela eta denbora une horretan bertan hasiko dela.
6. Proba bukatzeko 10 minutu falta direnean, horren berri emanen du.

J. Probak aplikatzeko egutegia

Astelehena Maiatzak 23	Asteartea Maiatzak 24	Asteazkena Maiatzak 25	Osteguna Maiatzak 26	Ostirala Maiatzak 27
Matematikako gaitasuna	Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz	Gaitasuna ekoizpen idatzian		
Atsedena	Atsedena			
Irakurtzeko gaitasuna euskaraz (D eredu)	Gaitasuna ingelesez			

K. Proben zuzenketa

1. Irakasle zuzentzaileak ondoko hauek dira:

Proba	Zuzentzailea
Hizkuntza gaitasuna	Taldekotutorea edo ikastetxeko beste irakasle bat
Gaitasuna ekoizpen idatzian	
Matematikako gaitasuna	
Gaitasuna ingelesez	Ingelesezko espezialista

2. Proba bakoitzak zuzenketa koaderno bat du, eta bertan zehazten dira galdera irekiak zuzentzeko irizpideak. Koaderno hauek ikastetxeko zuzendariaren eskura izanen dira probaren egunean, pasahitzarekin, Hezkuntza Departamentuaren webgunean:

<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluacion-externa/evaluacion-de-navarra/educacion-infantil-y-ep-curso-2015-2016>

Ikaslearen erantzuna zuzenketa irizpideekin alderatu ondoren, zuzentzaileak puntuazioa edo behar den kodea (0, 1, 2...) ikaslearen koadernoan jarriko du.

Galdera itxiak ez dira zuzendu behar. Ikaslearen erantzunak Educa aplikazio informatikoan sartuko dira eta puntuazioa automatikoki emanen zaie.

3. **Epeak.** Probak aplikatu ondoren, zuzendu egingen dira. Gomendatzen da aplikazioa bukatu ondoren hastea, kontuan izanik, betiere, probak zuzentzeko eta datuak Educan sartzeko azken eguna ekainaren 3a dela, ostirala.

L. Datuak sartzea

1. Ikasleen koadernoak zuzendu ondoren, galdera itxien erantzunak (A, B, C, D) eta galdera irekiei emandako puntuazioak (0, 1, 2...) Educa aplikazio informatikoan sartuko dira.

Hezkuntza Departamentuko webgunean eskuliburu txiki bat dago, Educac datuak sartzeko jarraibideekin. Era berean, izan daitezkeen zalantzak Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Ikasleen Ebaluazio Arloan argituko dira, mezuak (evaleduc@navarra.es) posta elektronikora bidaliz edo 848426554 telefonora deituz.

2. **Epeak.** Datuak maiatzaren 30etik ekainaren 3rako astean sartuko dira.

3. Ezinbestekoa da ikasle guztien datuak zuzen erregistratu direla ziurtatzea, datuak sartzeko epea bukatu ondoren ez baita aldaketarik egiten ahalko.

Tutoreak egiazta dezake Educac zer dagoen erregistraturik ikasle bakoitzaren gainean. Era berean, zuzendariak CSV fitxategia ikus dezakete eta egiaztatu datu edo erregistro osatugabe edo hutsak dituen ikaslerik baden.

Datuak falta badira edo akatsak badaude, Educa aplikazioak ikaslearen eta ikastetxearen txostenak sortuko ditu gertaera hori kontuan harturik. Dena dela, Educa aplikazioak ez du ezarritako epeetatik kanpora aldaketarik edo zuzenketarik egiten uzten. Hori hala izanik ere, ikastetxeak berak **eskuz** zuzendu edo osatu ditzake txosten horiek horretarako baliazko aipaturiko CSV fitxategiak eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean eskuragarri dagoen dokumentazioa. Eskulan hau neketsua izan daiteke. Beraz, komeni da datuak sartzean akatsak edo hutsegiteak saihestea eta zuzendariak erregistratutako datuak gainbegiratzea gorago aipaturiko CSV fitxategia erabiliz.

4. Egokitzapenak behar dituzten ikasleak aipaturiko erregistroetan identifikaturik geldituko dira, "egokitzapenak" zutabearen dagokien laukitxoan markatuta. Egokitzapenak behar dituzten ikasleen datuak ez dira kontuan hartuko ikastetxeko batez bestekoak egiteko.
5. Ikastetxeko zuzendariak adierazitako faseak eta epeak betetzen direla begiratuko du. Ebaluazio faseak jarraibideei jarraikiz egiten badira, Ikasleen Ebaluazio Arloak aukera du horien bilakaera gainbegiratzeko eta ikastetxeetako kontsultei hobeki erantzuteko.

M. Ikaslearen eta ikastetxearen txostenak eskuratzea

1. Ekainaren 13tik aurrera ikastetxeek txostenak eskuratuko dituzte, Educa aplikazio informatikoaren bidez.
2. Ikaslearen txostena.

Ondoko informazioa du:

- Ikasleak **ebaluaturiko gaitasun bakoitzean** lortutako maila. Gaitasun mailak bost izanen dira:
 - Gutxiegia
 - Nahikoa
 - Ongi
 - Oso ongi
 - Bikain
- Ikasle bakoitzaren **posizio erlatiboa** Nafarroako batez bestekoaren aldean, grafikoki adierazita.
- **Oharretarako gunea**, tutoreak bete dezakeena. Banakako ebaluazioaren txosten honen xedea da ikasle bakoitzarendako hobekuntza neurriak hartzen laguntzea, eta badu *oharrak* izeneko atal bat, tutoreak egokitzat jotzen duen mezua idazteko erabil dezakeena.

Familiek seme-alaben emaitzak ezagutzeko eskubidea dute. Eskubide hori betetzeko, txosten honek ikastetxeei tresna bat eskaintzen die, tutoretza lanaren testuinguruan. Ekainerako prest egonen da, familiei emateko.

Educa aplikazio informatikoak aukera ematen du ikastaldeko txosten guztiak artxibatze eta paperean inprimatzeko, modu erosoan.

3. Ikastetxearen txostena (ikastetxeko ikasleen emaitza orokorrekin egindako txostena).

Ikastetxeek, Educa aplikazio informatikoaren bidez, bertako ikasleek erdietsitako emaitzen **txosten orokorra** eskuratuko dute, Nafarroako batez besteko emaitzeekin erkatuta. Txostenak ondoko informazioa du:

- * Sarrera, haren irakurketa eta emaitzen barne azterketa errazteko.
- * Ikastetxeko ikasleen emaitzak gaitasun bakoitzean.
- * Ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean.
- * Maiztasun grafikoak, puntuazio bakoitzerako.
- * Erantzun zuzenen ehunekoa item bakoitzerako, grafikoarekin.
- * Batez besteko puntuazioak ikasgelaz ikasgela.

- * Emaitzak alderatzen dituzten grafikoak, gaitasunez gaitasun, baita eskala komun batera ekarritako puntuazioekin ere.
- * Gaitasun bakoitzerako *Errendimendua-ISEK* erregresio-zuzena duten grafikoak, ikastetxea zein tokitan dagoen adieraziz.

Irakasleen klaustroak ebaluazioaren emaitzak aztertu eta baloratuko ditu. Datuen gaineko hausnarketa egin ondoren, hobekuntza ildoak planteatuko dira eta horren guztiaren berri emanen zaio eskola kontseiluari.

Ikastetxeetako zuzendariak urtez urte egiten diren ebaluazioen txostenak formatu elektronikoan gordeko dituzte.

4. Datuen fitxategia (CSV formatuan)

Ikaslearen eta ikastetxearen txostenez gain, Educa aplikazioak CSV formatuan dagoen fitxategi bat ere ematen du, non ikastetxeko ikasleen erantzunak dauden, taula batean adierazita. Fitxategian ondoko informazioa dago, gaitasun bakoitzeko:

- Ikasleen erantzunak. Galdera itxien kasuan, ikaslearen erantzuna jasotzen da (A, B, C, D) eta galdera irekien kasuan, esleitutako puntuazioa (0, 1, 2...). Informazio horri esker, modu zehatzagoan azter ditzakegu ikasleek egin dituzten akatsak eta asmatu dituzten galderak.
- Ikasleek zuriz utzi dituzten galderak. Informazio horri esker, azter dezakegu zenbateraino diren gai ikasleak ahalegin eta autonomia handiagoa eskatzen dituzten jarduerari aurre egiteko.
- Lortutako puntuazio zuzena.
- Esleitutako gaitasun maila.

Datuen fitxategiak ikastetxeari laguntzen dio azterketa osagarriak egiten eta Educa aplikazioak sortzen duen txostena osatzen. Esate baterako, CSV fitxategiaren datuekin ondokoa egin daiteke:

- Gaitasun desberdinen puntuazioen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Gaitasun desberdinetako gaitasun mailen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Grafikoak egitea eta ikasleen puntuazioen banaketa mailaren arabera irudikatzea.
- Gaitasun desberdinen puntuazioen eta barneko ebaluazioetan ikasleek lortu dituzten emaitzen arteko korrelazioak kalkulatzeko.
- Ikasleen erantzunak eta emaitzak alderatzea ikasgelaren, sexuaren eta abarren arabera.
- Eta abar.

CSV fitxategia dokumentu mota bat da, formatu irekikoa eta xumea, eta kalkulu orriak kudeatzeko erabiltzen den edozein programarekin ireki eta maneiatu daiteke.

N. Ikasleek egindako probak gordetzea

Ikasleen koadernoak ikastetxean geldituko dira 2016ko azaroaren 30a arte, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku utziko dira, zuzenketa irizpideen baliozkotasuna egiaztatzeko azterlanak egin behar badira, edo jakiteko zuzenketa irizpideak modu zuzen eta homogeneoan jarraitu ote diren.

O. Eskerrak ematea

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak eskerrak eman nahi dizkie ebaluazio zeregin honetan arituko diren zuzendari, tutore, irakasle, orientatzaile, zerbitzuetako langile, ikasle eta gurasoei.

1. ERANSKINA

EGOKITZAPENEN ERREGISTROA

Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailaren ebaluazioa

2015-2016 ikasturtea

Ikastetxea:

Egokitzapenen erregistroa				
	Ikastaldea	Izen-deiturak	Egin beharreko egokitzapena	Datuak Educan erregistratzea (Bai / Ez)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				

* Erregistro hau ikastetxean gordeko da (ez da Hezkuntza Departamentura bidali behar).

2. ERANSKINA: EGUTEGIA

Jarduketa garrantzitsuenen egutegia

Apirila

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

→ Online galdera-sorta aplikatzea (apirilaren 20tik maiatzaren 20ra)

Maiatza

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

→ Egokitzapenen erregistroa

→ Probak jasotzea eta Ingeleseko CDa egiaztatzea

→ Proben aplikazioa (maiazaren 23tik 25era)

→ Probak zuzentzea eta datuak Educan erregistratzea (maiazaren 26tik ekainaren 3ra)

Ekaina

		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

→ Ikaslearen eta ikastetxearen txostenetan sartzea (ekainaren 13tik aurrera)

Gorde txostenak ekainaren 30a baino lehenago!